


# HERNANIKO UDALAREN EKINTZA PLANA

<u>HELBURUAK</u>

-Udalak COVID-19aren hedapena geldiarazten jarrera aktiboa izatea.

-Egoera zaugarrienean dauden herritarrei eta kolektiboei erantzun egokia ematea.

-Herri eta komunitate izaera indartzea.

-Areagotu den zaintza krisiari eremu publikotik erantzutea ahal den neurrian, horretarako behar diren baliabideak egokituz.

<u>ILDO ESTRATEGIKOAK</u>

-Pertsonei ongizatea eta bizi-baldintza duinak bermatzea.

-Zerbitzu publikoak indartu eta egoera berrira egokitzea.

-Tokiko Garapenean oinarritutako neurriak eta estrategia finkatzea.

-Gobernantza: gardentasuna, modernizazioa, komunikazioa eta eragileekin harremanak sendotzea.

| 1-PERTSONEN ONGIZATEA | |
|---|---|
| Euste fasea | Berraktibazio fasea |
| <u>ADINEKOAK</u><br>-Zaharren egoitza sektorizatu kutsadurak prebenitzeko.<br>-Egoitzan oxigeno zentralizatua aktibatu arnasketa arazoak hobe erantzuteko.<br>-Udalak lortutako babes ekipoak egoitzarako lehenetsi.<br>-Zahar egoitzako pertsonen eta familien | <u>ADINEKOAK</u><br>-Zahar egoitzan pertsonak aire librean egoteko espazio berriak sortu<br>-Zahar egoitzako bisitak aztertu segurtasun neurriak bermatuz |

| | |
|---|---|
| arteko harremana bermatu. Egunero dei bat jaso eta astean behin bideodei bat.<br>-Eguneko zentroa itxi eta erabiltzaileei telefonoz jarraipen zuzena eta familiekin batera egoerak aztertu eta behar denetan Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) jarri.<br>-EELZren intentsitatea handitu erabiltzailearekin egoera aztertuta.<br>-65 urtetik gorako 4.000 herritarrei telefono deiak egin euren egoera nolakoa den jakiteko (Gizarte langilearen jarraipenarekin). | |
| <u>INDARKERIA MATXISTA</u><br>-Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen kasuen zuzeneko jarraipena.<br>-Indarkeria matxistaren inguruko baliabideen inguruko informazioaren zabalpena hizkuntza ezberdinetan.<br><br><u>KOLEKTIBO ZAURGARRIAK</u><br>-Kalean dauden pertsonen egoeraren azterketa eta erantzun egokitua. Hainbat kasutan udal baliabideak eskaini.<br>-GLL eta Bakarkako dirulaguntzen partiden handitzea eta tramitazioak erraztea. Erroldarik ez daukaten pertsonen sarbidea bermatu.<br>-Oinarrizko elikagaiak bermatzeko diru-laguntzak banatzeko prozedura berezia azkartu.<br>-Jangela sozialeko erabiltzaileei etxeetara otorduak banatu.<br>-Babesgabe dauden adingabekoei jarraipen telematikoa egin.<br>-Erroldarik gabeko pertsonei oinarrizko beharrei erantzuteko sistemarako sarrera bermatu. | <u>INDARKERIA MATXISTA</u><br>-Herri ezberdinetako eragile feministekin elkarlanean COVID-19ak sortutako egoeraren inguruko hausnarketa saioa, aurrera begirako baliabideak zehazteko. |

| | |
|---|---|
| ADINGABEAK<br>-Ikastetxeekin elkarlanean sor daitezkeen gabeziak detektatu eta bideratzeko: Kaxkardiren bidez materiala etxeetan banatu.<br>-"Haurrak eta konfinamendua" gaia lantzeko aditu baten hitzaldi telematikoa gurasoei zuzenduta. | |
| **2-ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTU ETA EGOKITZEA** | |
| **Euste fasea** | **Berraktibazio fasea** |
| AURREZ-AURREKO ARRETA: aurrez-aurreko zerbitzu eta hitzordu guztiak eten. | AURREZ-AURREKO ARRETA: oinarrizkoak diren udal zerbitzuen aurrez-aurreko arretaren berreskurapen progresiboa langileentzat zein herritarrentzat segurtasun neurriak hartuta (manparak, aurrez aurreko hitzordua).<br>-HHZ<br>-Gizarte langileak |
| UDAL LANGILEAK: funtzioak behar berrietara egokitu langileen osasuna bermatuta.<br>-Krisiaren hasieratik osasun-zein kontziliazio-arazoak zituzten langileen etxeratzea eta telelana egiteko aukera eman (80 langile telelanean)<br>-Adinekoen egoitzan erizain, klinika laguntzaile eta erizainen kontratazio berriak. Osakidetzari eskaera egin medikua dedikazio osoz aritzeko. Guztira: martxoa-ekaina 213.000 euro gehiago inbertitu da pertsonalaren errefortzuetan.<br>-Krisiak sortutako beharrak asetzeko funtzioen egokitzea:<br>-Beste udal zerbitzuetako 13 langile adinekoei deiak egiten.<br>-Zerbitzu Publikoetako langileak (Herri | UDAL LANGILEAK: ohiko lanpostuetarako itzulketa progresiboa. Apirilaren 27tik hasita, faseetan antolatuta. Telelanarekin osagarria eta kontziliazio eta osasun-arazoak kontuan hartuta.<br>ZERBITZUEN INDARTZEA:<br>-Zaharren egoitzako errefortzuekin jarraitu.<br>-Bi gizarte langile gehiago kontratatu sortuko diren behar berriei erantzuteko (maiatza-iraila). 37.000 euro |

| | |
|---|---|
| lanak):<br>• adinekoen egoitzan egokitzapenak egiten<br>• etxez etxeko elikagaiak banatzen<br>• kaleak desinfektatzen<br><br><u>ZERBITZUEN KONTRATUAK</u>: udal langileekin jarraitutako irizpideak aplikatu zaizkie. Langile horiekin ere osasuna eta kontziliazioa lehenetsi dira.<br>-Funtsezkoak direnak bere horretan jarraitu: EELZ<br>-Funtsezkoak baina moldatu beharrekoak: eraikinen garbiketa (itxita dauden eraikinen garbiketa eten eta irekita daudenena indartu).<br>-Funtzio berrietara egokitu: eguneko zentroko langileak adinekoen egoitzan, kiroldegiko monitoreak modu telematikoan saioak eskaini, Gaztelekuak programazio telematikoa, esku-hartze giza-hezitzailea modu telematikoan.<br>-Esentzialak ez eta telematikoki egin ezin daitezkeenak: kontratuak eten dira baina langileei ohiko soldata bermatu zaie. Horretarako, enpresa bakoitzarekin banan-banan negoziatu da.<br><br><u>ZERBITZUEN MOLDAKETA</u>:<br>Euskaltegia, Musika Eskola eta Kiroldegiko ikastaroak modu telematikoan eskaini. | |

<table>
<tr><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="2">3-TOKIKO GARAPENA</td></tr>
<tr><td>Euste fasea</td><td>Berraktibazio fasea</td></tr>
<tr><td>
<u>ORDENANTZA FISKALAK:</u><br><br>
Herritarrentzat:<br>
• Kobraketa guztiak bertan behera utzi.<br>
• Musika Eskola, Kantuz, Euskaltegia, Biteri eta Kiroldegiko ikastaroen eta Kiroldegiko abonuen kobraketa eten.<br>
• Egutegi fiskal berria sortu. IBI eta Ibilgailuen zergaren ordainketaren epea atzeratu.<br>
• Udalaren hornitzaileei ordainketak normaltasunez egin.
</td><td>
<u>ORDENANTZA FISKALAK</u><br><br>
Herritarrentzat:<br>
• FISKALITATE MALGUA<br><br>
Zergen eta tasen ordainketaren zatiketa hiru hilabetetan, interesik gabe. E-postaz edo telefonoz eskatzeko aukera. (bilketa@hernani.eus, telefonoa-943337045 (10:00-14:00)<br><br>
• TASEN KALKULUAREN EGOKITZAPENA<br><br>
-Martxoaren 14tik ikastaroak ez dira presenzialak izan. Hori dela eta, Musika Eskola, Kantuz, Euskaltegia, Biteri eta Kiroldegiko ikastaroen itzulketa proportzionala izango da ordainduaren arabera. Itzulketa izango da 105.000 EURO<br><br>
-Urtarrilean eta otsailean berritutako Kiroldegiko abonuen iraupena luzatuko da itxita egon den denboran.<br><br>
<u>JARDUERA EKONOMIKOA SUSPERTZEKO DIRULAGUNTZAK</u>: 600.000 EURO<br><br>
• HELBURUA: Egoitza soziala Hernanin duten eta milioi batetik beherako fakturazioa duten enpresei laguntzea.<br>
• ONURADUNAK:<br>
1. Espainiako Gobernuaren dekretuaren arabera alarma egoeraren ondorioz itxi dutenak.<br>
2. Ohiko fakturazioaren %40a baino gutxiago izan dutenak.<br>
3. Dekretuan sartu ez direnak baina kontziliazio arazoengatik itxi behar
</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | izan dutenak (12 urtetik beherako haurra edo menpekotasuna daukan senitartekoren bat zaintzeagatik, COVID-19rengatik itxi den erakunderen batean zegoena)<br>• DIRULAGUNTZAK:<br>○ Murrizpenak tasen ordainketan:<br>a) Dekretuaren arabera edo kontziliazioa dela eta itxita dauden jarduerak: ez zaie kobratuko 2. hiruhileko hondakinen tasa eta lehen lauhileko uraren tasa.<br>b) Irekita egon arren, %40 gutxiagoko fakturazioa izan dutenak: %50eko murrizpena 2. hiruhileko hondakinen tasan eta lehen lauhilekoaren uraren tasan.<br>d) Ostalaritzan aforo mugak dauden bitartean ez da terrazaren tasarik kobratuko.<br>○ Dirulaguntza zuzenak: (Bateraezina da helburu bereko beste dirulaguntzekin).<br>a) Itxita dauden jarduerentzat : 600 euro<br>b) %40ko fakturazioa baino gutxiago izan dutenentzat: 300 euro<br>d) Lokala ordaintzeko laguntzak: 400 euro: alokairua, hipoteka edo OHZ (kargarik gabe).<br>e) Kredituen interesak ordaintzeko laguntzak: 400 euro alarma egoeran eskatutako kredituen interesak ordaintzeko (5.000 eurotik beherakoa) |

| | |
|---|---|
| <u>MERKATARITZA</u><br>-Azokak mantentzea.<br>-Dendarien artean informazioaren eta babes neurrien banaketa.<br>-Kaleko ilarak murrizteko ekintzak.<br>-Merkatarientzat doako on line ikastaroak:<br>1- Argazkiak mugikorrean editatzeko ikastaroa.<br>2- Bideoak mugikorrean sortu eta editatzeko ikastaroa.<br><br>-Hernaniko lehen sektoreko ekoizleen eta dendarien arteko bitartekaritza ekoizleen produktuak herriko dendetan merkaturatzeko.<br><br>-Maskarak irekita dauden establezimenduetan banatu (Hernani Lanbide Heziketaren donazioa).<br><br>-Motibazio/sentsibilizazio bideoa Berriak elkarteko merkatariekin.<br><br>-Motibazio bi saio merkatarientzat eta ostalarientzat.<br><br>- Sektorearen egoeraren diagnostikoa<br>- Norbera babesteko ekipoak (maskarak...) | <u>MERKATARITZA, OSTALARITZA, ZERBITZUAK ETA TURISMOA</u><br>-Asistentzia teknikoaren kontratazioa<br>-TOKIKO KONTSUMOA SUSTATZEKO BONOAK: saltokiak, ostalaritza eta zerbitzuak<br>700.000 euro:<br>✔ 600.000 euro bonoetan<br>✔ 100.000 euro loteetan<br>Tokiko ekonomian izango duen inpaktu ekonomikoa: **2.100.000 euro** |
| <u>KULTURA</u><br>-Programazio kulturala eten, baina atzeratu eta konpromisoak mantendu.<br>-Hitzartutako taldeei %30 eta %100eko aurrerapena ordaindu likidezia izan dezaten | <u>KULTURA</u><br>-Hernani Kultura on line programazio ekimena. Urteko ohiko programazioa egoera berrira egokitzea eta sektorearen berraktibazio ekonomikoa helburu. |

| LEHEN SEKTOREA<br><br>-Ekoizle eta dendarien arteko bitartekari lana ekoizpen soberakina saltzeko | ETXEKO LANGILEAK<br><br>-Etxeko langileentzat aholkularitza espezifikoa. |
|---|---|
| **4-GOBERNANTZA** | |
| Euste fasea | Berraktibazio fasea |
| Neurriak eta erabakiak gune desberdinetan modu adostuan hartu:<br><br>UDALAREN BARRUAN<br><br>-Udalean krisi mahaia sortu teknikari zein langileen ordezkariekin batera.<br><br>-Oposizioko taldeei modu telematiko zein presentzialean neurri guztien berri eman.<br><br>HERRIKO ERAGILEEKIN elkarlana:<br><br>-Urumea Herri Gunea: etxeetara erosketak eramaten. Udalak segurua ordaindu<br><br>-Elikagai Bankua: koordinazioan Udalak etxez etxeko banaketa egin<br><br>-Berriak merkatari eta ostalarien elkartea<br><br>KOMUNIKAZIOA:<br><br>-Bandoak<br><br>-Udal webgunean COVID19 atal berezia sortu<br><br>-Udalaren jardunari buruz eta erabakiei buruzko etengabeko informazioa eskaini Udalak dituen kanalen bidez -webgunea, sare sozialak- eta tokiko hedabideen bidez. | ERABAKIGUNEAK BERRESKURATZEA<br><br>-Apirilaren 22tik aurrera ohiko erabaki guneak berreskuratu, udal talde guztien parte-hartzearekin (Batzordeen eta osoko bilkuraren berreskuraketa modu telematikoan).<br><br>TRAMITE TELEMATIKOAK SUSTATZEA<br><br>-Herritarrek udal tramiteak telematikoki egiteko kanpaina abiatu. |